



Balantzeak eguneratzeari buruzko Foru Dekretu Arau Proiektua. Eragina zerga-bilketan eta generoan



1. Sarrera

Txosten honen helburua da kuantifikatzea zenbateko eragina izango duen Gipuzkoako Foru Ogasunaren zerga-bilketan balantzeak eguneratzeari buruzko Foru Dekretu Arauaren Proiektuak. Jakin nahi da zein neurritan aldatuko den zerga-bilketa arau proiektu berrian jasotzen diren neurriak aplikatzen badira.

2. Araudiaren aldaketak

Hauek izango lirateke, oro har, balantzeak eguneratzeko proiektuaren ezaugarri nagusiak:

- Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak, jarduera ekonomikoak egiten dituzten PFEZaren zergadunak , eta lurralde espainiarren establezimendu iraunkor bidez jarduten duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunak bildu daitezke proiektuan ezarritakora.
- Mekanismoa borondatezkoa da, eta zergaldi bakarrean gauzatu behar da.
- 2012ko abenduaren 31ko kontabilitatean (edo erregistro liburuetan) ageri diren ondare elementu hauek eguneratu daitezke:
 - o Espainian zein atzerrian kokatuta dauden ibilgetu materialaren zein higiezineta inbertsioen elementuak.
 - o Errentamendu finantzarioko araubidean eskuratutako ibilgetu materialaren zein higiezineta inbertsioen elementuak.



- o Emakida erabakiak direla-eta azpiegitura publikoen enpresa emakidadunek aktibo ukiezin gisa erregistratu dituzten ondare elementuak.
- Ondoko koefizienteak aplikatuta egingo dira eguneratze-eragiketak:

Eskurapen /ekoizpen urtea	Koefizientea
1984ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa	2,391
1984ko ekitaldian	2,172
1985eko ekitaldian	2,004
1986ko ekitaldian	1,887
1987eko ekitaldian	1,798
1988ko ekitaldian	1,717
1989ko ekitaldian	1,635
1990eko ekitaldian	1,571
1991ko ekitaldian	1,519
1992ko ekitaldian	1,473
1993ko ekitaldian	1,460
1994ko ekitaldian	1,432
1995eko ekitaldian	1,366
1996ko ekitaldian	1,318
1997ko ekitaldian	1,296
1998ko ekitaldian	1,349
1999ko ekitaldian	1,300
2000ko ekitaldian	1,213
2001eko ekitaldian	1,196
2002ko ekitaldian	1,175
2003ko ekitaldian	1,158
2004ko ekitaldian	1,144
2005eko ekitaldian	1,123
2006ko ekitaldian	1,103
2007ko ekitaldian	1,064
2008ko ekitaldian	1,038
2009ko ekitaldian	1,027
2010eko ekitaldian	1,026
2011ko ekitaldian	1,010
2012ko ekitaldian	1,000



- Balio eguneratuaren eta aurreko balioaren arteko diferentziari %5eko karga tasa ezartzen zaio.

3. Zerga-bilketako eragina

Borondatezko neurri bat denez gero, oso zaila gertatzen da kalkulatzeko zenbateko eragina izango duen zerga-bilketan balantzeak eguneratzeak (oso aleatorioa da zenbait enpresa bildu daitezkeen esatea). Gainera, faltan ditugu estimazio egokiak egiteko behar diren datuak.

- Jarduera ekonomikoak egiten dituzten PFEZaren zergadunen kasuan, eta lurralde espainiarren establezimendu iraunkor bidez jarduten duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei buruz, ez dugu inolako daturik.
- Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboen kasuan, jakin badakigu ondasun eguneragarrien balio osoa zein den; hala ere, ez dakigu bakoitzak zer balio indibidual duen eta zein urtetan eskuratu edo ekoiztu den, eta hori funtsezko datua da bakoitzari aplikatu behar zaion eguneratze-koefizientea ezagutzeko.

Hortaz, neurri honen zerga-bilketako eraginari buruzko lehen hurbilpen bat egin ahal izateko, abiapuntutzat hartu dugu Gipuzkoako Lurralde Historikoan balantzeak eguneratzeko onartu zen azken araua (11/1996 Foru Araua, abenduaren 5ekoa).

Alabaina, arau horrek badu diferentzia nabarmen bat proposatzen diren neurrien aldean: balantzeen 1996ko eguneratzeak ez zuen inolako karga tasarik ezarri balio eguneratuaren gainean; proiektu honek, ordea, %5eko tasa ezartzen dio.



3.1. 1996ko balantze-eguneratzearen emaitzak

Analisia behar bezalakoa izan dadin, datuak hartu behar dira bai 1995eko ekitalditik bai 1996kotik beretik.

1995ean, 9.752 enpresak aitortu zuten sozietateen gaineko zerga Gipuzkoako foru araudiaren arabera, eta aitortutako ibilgetu materialaren balio osoa 3.825 euro izan zen. 1996an, berriz, 10.656 enpresak aitortu zuten zerga hori, eta ibilgetu materialaren balioa 4.552 milioi euro izan zen (+%19,0).

Sozietateen gaineko Zerga – Gipuzkoako foru araudiaren mendeko enpresak

	1995	1996
Aitortzaileak, guztira	9.752	10.656
Ibilgetu materialaren balio osoa	3.825.035.450	4.551.979.721

Zenbatekoak eurotan

1996. urtean, 1.145 enpresek eguneratu zituzten balantzeak (kopuru osoaren %10,7k), eta eguneratutako ibilgetu materiala 409 milioi euro izan zen guztira. 1995ean, balantzeak eguneratu zituzten enpresen ibilgetu materialak 1.955 milioi euroko balioa zuen, zenbateko osoaren %51,1 (3.825 milioi euro).

Sozietateen gaineko Zerga Gipuzkoako foru araudiaren mendeko enpresak, balantzeak eguneratzeko 11/1996 F. Araura bildutakoak

Bildutako enpresa kopurua	1.145
Ibilgetu materialaren balioa 1995ean	1.954.718.023
Ibilgetu materialaren balioa 1996an	2.480.792.444
Balantzeak eguneratzearen zenbatekoa	408.645.670

Zenbatekoak eurotan



Taulan ikus daitekeenez, eguneratzearen zenbateko globala (408 milioi euro) enpresa horien ibilgetu materialak 1995ean duen balioaren %20,9 da.

3.2. Zerga-bilketan espero den eragina

Gorago adierazi bezala, zaila da oso balantzeak eguneratzeak zerga-bilketan izango duen eraginari buruzko estimazio fidagarri bat egitea:

- Borondatezko neurri bat da.
- Datuak ez daude behar bezala desagregatuta, ondasun bakoitzari zein eguneratze-koefiziente dagokion jakiteko.
- Erreferentzia bakarra 1996an onartutako eguneratzea da. Hala ere, hura egin zenetik 16 urte igaro dira eta, gainera, oraingo proiektuak %5eko karga tasa ezartzen du, 1996an onartutako foru arauan eguneratzea salbuetsita zegoen bitartean. Hori dela-eta, proiektzioak 1996ko emaitzetan oinarrituta egiteak badu bere arriskua.

Dena den, erreferentzia gisa kontuan har ditzakegu 2011ko ekitaldian Sozietateen gaineko Zergaren Gipuzkoako foru araudiaren arabera aurkeztutako aitorpenetako datuak. Datu horien arabera, eguneratu litezkeen ondasunen balio osoa 11.483 milioi euro da.

2011ko Sozietateen gaineko zerga Gipuzkoako foru araudiaren mendeko enpresak

Aitorpen kopurua	21.944
Ibilgetu materialaren + higiezineta inbertsioen balio osoa	11.482.673.990

Zenbatekoak eurotan



Hala ere, ez dugu ahaztu behar balantzeak eguneratzeak badituela, aplikatzen den ekitaldian, beste ondorio batzuk, zerga-bilketako emaitza hutsaz aparte:

- Eguneratzearen ondorioz, enpresen balantzeek hobeto jasoko dute aktibo bakoitzaren balorazioa. Eta gaurko egoera ekonomikoan, balantzeak indartzea funtsezko elementua da enpresek baldintza hobeak izan ditzaten finantza-merkatuetara iristeko. Azken finean, horrek ondorio positiboak izango ditu enpresen esparruan, barne finantzaketa bera ez ezik kapitalen merkaturako sarbidea ere erraztuko baititu.
- Ondasunak eguneratzearen ondorioz sortzen den balio-gehikuntza 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera amortizatuko da. Hau da, balantzeak eguneratzen dituzten enpresek gastu handiagoak izango dituzte, eta horren ondorioz, haien emaitza murriztu egingo da. Horrek berekin ekarriko du oinarri ezargarria jaistea eta sozietatearen gaineko zergarengatik gutxiago ordaintzea.

4. Genero eragina.

4.1. Txostenaren oinarriak eta xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoan onartuta dagoen Gizon eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 6. artikuluan dio foru administrazioei dagokiela foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipioaren arabera. Era berean, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan ezartzen du, foru arauen aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak prestatzeko prozeduraren barruan, genero eraginari buruzko derrigorrezko txosten bat aurkeztu behar dela eranskin gisa.



4. 2. Genero ikuspuntutik kontuan hartzeko neurrien identifikazioa.

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten PFEZaren zergadunei eta lurralde espainiarren establezimendu iraunkor bidez jarduten duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, balantzeak eguneratzeak zuzenean eragiten du gizonezkoengan eta emakumezkoengan, eta, beraz, iruditzen zaigu egokia dela hura aztertzea genero eraginari dagokionez.

Alabaina, zerga-bilketako eraginari buruzko atalean adierazi dugun bezala, ez daukagu gure esku pertsona fisikoei buruzko daturik, eta, beraz, proposatutako neurria ezin da kuantifikatu genero eraginaren ikuspegitik.

Donostia, 2013ko otsailaren 4a

AZTERLANETAKO ATALBURUA

ONIRITZIA

ERAKUNDEEIKO KONPROMISOEN ZERBITZUBURUA